



## Aurrera doa Adarra kaleko BOEn zozketa

Loidi Barren eremuko Adarra kalean egingo diren 100 etxebizitza babestuen zozketaren prozedura ekainaren 6an onartu zuen Udaltzarrak. Etxebizitza erregistroan izena eman duten herritarrek promozio honetan sartzeko aukera dute. Oraindik izena eman ez dutenek, ekainaren 28ra arte dute eskaera egiteko epea zabalik. /3

## Alkatearen izendapenari erantzunak

■ Plataformak udal eraketa eguneko jarrera azaldu du ■ PSE-EEK Gobernu taldearen gaitasuna dudan jarri du ■ Paktua egin duten alderdiak kritikatu ditu

Lehengo larunbatean, ekainaren 11n, Udal Batzarra eratu eta alkate berria aukeratu zen, Bilduko Pablo Barrio, hain zuzen ere.

Horretarako, Bildu, EAJ eta Lasarte-Oriako Herritar Plataforma elkartu ziren.

Plataformak azken hogeiki egunetan gertatutakoa eta udal batzarrean izandako jokaera argitzeko prentsa oharra bidali du komunikabideetara, alderdi ezberdinekin egindako bileren nondik norakoak jasoz. Plataformak argi uzten du oharrean Jesus Maria Zaballos alkate ohiaren "negoziatzeko erak" LOHPrekin akordio batetara iristeko aukera galarazi zuela.

Honetaz gain, "aldaketa erreal baten esperantza egon delako eman diogu Bildu-EAJ koalizioari botoa," azaltzen dute plataformakoek.



PSE-EEKo kideek asteazkenean eskaini zuten prentsaurrekoa haien iritzia azaldu.

Bestaldem agintean izango diren bi alderdiek plataformari gobernuaren parte izateko eskatu badiote ere, oposizioan egongo direla azpimarratu dute hauek.

### PSE-EEren ikuspuntua

Era berean, PSE-EEK ere larunbatean gertatutakoaren irakurketa egin du. Asteazkenean eskaini zuten prentsaurrekoan, Jesus Zaballosek gobernu era-

ketan bozka gehien izan dituen zerrenda alde batera utzi dutela salatu zuen.

Alderdi sozialistaren ordezkariak alkate berriaren izendapenean zer ikusia izan duten alderdien jarrera salatu zuen eta, besteak beste, gobernu talde berriaren gobernatzeko gaitasuna zalantzan jarri zuen edo LOHParen koldarkeria azpimarratu zituen.

Honen guztiaz gain, PSE-EEren bozeramaile izango den Zaballosek, oposizioa lasai doazela eta alderdi sozialistak herriaren alde lan egiten jarraituko duela adierazi zuen.

LOHParen eta PSE-EEren erantzunei buruzko informazio sakonagoa zenbaki honetako 4. eta 5. orrialdeetan aurkituko duzue. •

## Ikasturte amaiera berezia

Ludotekako ikasturte amaitez da eta horregatik, aste honetan ekingo diren bereziak izan dituzte haurrek.

Asteartean, hondartzara joan ziren eta asteazkenean, Miracampos hipikara egin zuten txangoa.

Bertan guraso eta haurrek primerako arratsaldea igaro zuten. Bertan dituzten ahuntzei eta beste animaliei janaria eman zieten, jolasak egin zituzten eta noski, zaldian ibili ziren. Aurretik hau zaintzen ikasi zuten: garbitzen, janaria ematen... •



Ludotekako haurrek Miracampos hipikako zaldiek eta animaliek arratsalde paregabeaz gozatu zuten.

### GIZARTEA /3

**Alboka, Alboka txiki eta Txepetxa abesbatzen kontzertua bihar**

### KIROLA /6

**Udabek eta Erkiziak Squash txapelketako finala jokatu dute**

### KIROLA /6

**Maialen Chourraut bosgarren izan da Europarrean**

**bildu**

Eskerrik asko Lasarte-Oria!!!

**Neure kabuz**



Eta alkatea...

... tan tan taran tan ... tan tan taran tan ... gure TXINTXARRIKO zutabekide bizarduna da. Ez, ez ... ez da Xabier apaiza. Betaurrekoak dauzka eta ile gehiago du buruan (bai, bai, nik baino gehiago). Bai, bai hori da, Pablo. Garbi dago TXINTXARRIK ikaragarritzko bista zorrotza izan zuela Lasarte-Oriako egungo alkatea urte pare bat lehenago zutabe honetan idazteko fitxatu zuenean.

Azkenean, garai berri bat ireki da herrian udal-tertxea sortu zen 25 urteren ondoren. Hori oso albiste ona da. Onartu beharra daukat gertatutakoaren tamaina espero nuena baino dezente handiagoa izan dela. Orain lan gogorra dago aurrean. Oposizioa gobernura pasa da eta gobernu oposizioa. Herriaren hobereana bilatzeko, inoiz baino gehiago, guztien lana beharko da eta, gainera, elkar aditzera behartuta egongo dira. Hori oso komenigarria iruditzen zait guztiok baikara herria. Zorte on alkate eta gobernu berriari!

Beno, besterik ez ... Ah, bai!!! Denbora emango al du Okendo plaza bi urteren ondoren San Pedroko jaientarako irekitzeko? Aurreko urteetan esan bezala, San Pedro apostoluak festetarako gogoia eman diezagun guztiok eta festa zoriontsuak igaro ditzazuen opa dizuet bihotzez ... eta iraila arte (zutabe honetan, noski, TXINTXARRIK eta irakurleriak nahi badu).

**Iñaki Erauskin**

**Zorion-agurrak**



**Andrea**

Zorionak Maitia zure 2. urtebetetzean. Familia guztiaren partetik, muxu asko printzesita!!



**Alazne**

Zorionak eta txokolatetzko zazpi muxu handi etxekoek partetik.



**Julen**

Zorionak!!! Zein azkar pasa den urtebete!!! Muxu handi bat guraso eta anaiaren partetik.



**Mario**

Zorionak zure lehenengo urtebetetzean potxolo!! Osasben partetik.



**Markel**

Zorionak txapeldun 4 urtebetetzean. Muxu bat, aita Lucia eta amaren partetik.

**Ospitaleetara doan autobusaren ordutegia**

Bidaiaren iraupena 15 minutukoa da

Lanegunetan	<b>Lasarte-Oriatik irteera</b> (Tajamar errotondatik)	7:30, 8:30, 9:30, 10:30, 11:45, 12:45, 13:45, 14:45, 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:00.
-------------	--	---

**Hiribusaren ordutegia**

	Antxisu	Zabaleta	Atsabakar	Cocheras
	7:45	7:55	8:00	8:05
	8:15	8:25	8:30	8:35
	8:45	8:55	9:00	9:05
	9:15	9:25	9:30	9:35
	9:45	9:55	10:00	10:05
	10:15	10:25	10:30	10:35
	10:45	10:55	11:00	11:05
	11:15	11:25	11:30	11:35
	12:15	12:25	12:30	12:35
	12:45	12:55	13:00	13:05
	13:15	13:25	13:30	13:35
	13:45	13:55	14:00	14:05
	14:15	14:25	14:30	14:35
	14:45	14:55	15:00	15:05
	15:15	15:25	15:30	15:35
	16:15	16:25	16:30	16:35
	16:45	16:55	17:00	17:05
	17:15	17:25	17:30	17:35
	17:45	17:55	18:00	18:05
	18:15	18:25	18:30	18:35
	18:45	18:55	19:00	19:05
	19:15	19:25	19:30	19:35
	19:45	19:55	20:00	20:05
	20:15	20:25	20:30	20:35



943.361.741

www.tsst.info



**Azoka txikia**

**Eskaientza inmobiliarioak**

• Pisua alokatzen da Lasarte-Orian. 75m2 ditu; sukaldea, 3 logela, sala, 2 komun eta terraza. Hegoaldeko orientazioarekin. Berogailuaren instalazio berria du eta lehiok aldatu berriak. Interesatuta dagoena 605 770 436 telefono zenbakira deitu eta Blancataz galdeitu.

elektronikora edo deitu 943 371448 telefonora.

• Umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko emakumea behar da. Lanaldia egunean 4 ordukoa izango litzateke. Harremanetarako telefono zenbakia: 606 400 596.

**Lan-eskariak**

• Magisteritzan diplomatu eskaintzen da ingelerako klaseak emateko, DBH4 mailara arte. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 660 465 247, Miren.

• Emakume bat goi-mailako frantzesarekin haurrei-helduei eta enpresetan klaseak emateko eskaientzen da. Itzulpenak ere egiten ditu. Harremanetarako deitu telefono zenbaki hauetara: 680 581 914 / 943 372 748.

**Lan-eskaientzak**

• Esperientziadun eta lan-taldekotako ardurak hartzeko prest dagoen kazetari bat behar da herri-aldizkari baterako. Taldekotako ardurak hartzeko ere prest dagoena. Interesatuek bidali kurrikuluma ttakun@ttakun.com helbidera

**Oharra jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com  
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

**Jaiotzak**

• Ian Piron Herrera, ekainaren 7an.

**Heriotzak**

• Juan Antonio Anton Gijon, ekainaren 16an 63 urte zituelarik.  
• Ventu Murillo Gutierrez, ekainaren 15ean.  
• Arantxa Echeveste Arocena, ekainaren 11n 83 urte zituelarik.

**Guardiak**

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

**Ostirala, 17**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Larunbata, 18**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Igandea, 19**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Astelehena, 20**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Asteartea, 21**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Asteazkena, 22**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Osteguna, 23**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



Lasarte-Oriako Udala  
**Euskarako Batzordea**



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Aurrera doa Adarra kaleko etxebizitza babestuen zozketa

Udaletxeko laugarren pisuko etxebizitza erregistroan eskaera egiteko epea ekainaren 28ra arte zabalik dago berrientzat

**E**kainaren 6ko udalbatzarrean herri ordezkariek Adarra kaleko zozketaren oinarriak onartu zituzten.

Babes ofizialeko 100 etxebizitzak 75 urtetarako azalera-eskubidean izango dira.

Aurreko zozketetan egondako kupoak eta taldeak mantenduko dira: mugikortasun urritua duten pertsonak, familia ugariak, 35 urte azpiko gazteak eta 35 urte baino gehiagokoak.

Azken bi hauek bi talde bereziko dira, batetik, familiar kide bat edo bi direnak, eta bestetik hiru kide baino gehiago direnak, baina familia ugaria izan gabe.

## Etxe kopurua

Baina etxebizitza kopuruari dagokionez, erregistroko kopuruak kontuan izan dira.

Gauzak honela, 100 etxebizitzak honela banatuko dira: 4 etxebizitza egokitu egongo dira, familia ugarietzat etxebizitza bat zozketatuko da, 35 urte azpiko gazteentzat 65 etxe izango dira (63 kide bat edo bi familiarientzat eta 2 kide gehiagoko familiarientzat) eta 35 urte baino gehiagokozentzat, berri, 30 (23 kide bat edo bi familiarientzat eta 7 kide gehiagoko familiarientzat).

Promoziio honetako oina-



Adarra kaleko babes ofizialeko 100 etxebizitzaren zozketako oinarriak onartu ziren.

rrieei edo zozketa prozesuari buruz gehiago jakin nahi duenak, Udalaren web orrialdean, [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org), eskura dezake.

## Erregistroan izena eman

Gauzak honela, Udalak jakinarazten du, Etxebizitza erregistroan eskaera egiteko epea ireki dela.

Adarra kaleko promozioko zozketan sartu nahi dutenek honetako baldintza guztiak bete beharko dira oinarri hauen behin betiko publikazioa Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzen den egunean

Honetaz gain, Etxebizitza Erregistroan izena emanda daukatenez ez dute eskabide berria aurkeztu behar gogorazten du Udalak.

Hauek aurkeztutako eskabidean dagoen informazioan aldaketak egonez gero jakinarazi behar dituzte hala nola, ezkontzak, seme-alabak, helbidearen aldaketa,...

Eskabideak eta beraren aldaketak aurkezteko epea ekainaren 28an amaitzen da.

Etxebizitza sailean, Udaletxeko 4. solairuan egin behar da eskaera eta eskaera orria bertan edo Udalaren web orrialdean eskuratu daiteke. •

ARCACHON

## Arcachonera ur jolasetzaz gozatzera

Igandean, ekainaren 19an, Kuadrillategi eta Gazte Klubeke kideek Arcachoneko ur-parkera egingo dute irteera.

Goizeko 08:30an irteerako dira hiru autobus Hipodromoko zubitik. Arduradunek garaiz ibiltzeko eskatzen diete gaztetxoiei.

Honetaz gain, gaztetxoek txangora eraman behar dituzten gauzak: bazkaria, merienda, txankletak, bainu jantzia, eskuoihala, krema eta osasun txartel europarra direla gogorazten dute antolatzaileek.

Itzulera, arratsaldeko 20:30etan izango da gutxi gorabehera eta gurasoei jakinarazten zaie goizean autobusa hartu duten leku berdinean jaso beharko dituztela haurrak. •

DYA

## Sorospen ikastaroa Usurbilen

DYA Gipuzkoak bi asteko sorosle eta lehen sorospen ikastaroa eskainiko du Usurbilgo Zaharren egoitzan, gure Pakea elkartean. Uztailaren 4tik 15rako iraupena izango du astelehenetik ostiralera goizeko 10:00etatik 13:00etara.

Biztanlego osoari irekia dagoen ikastaroa da eta ez da beharrezkoa aurrez inolako ezagupenik izatea.

Egunerokotasunean gerta litezkeen arazoei aurre egiteko balibideak irakatsiko zaizkie ikasleei. Ezagupen arruntak baina era berean baliagarriak izango dira, adibidez bihotz eta biriken suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak eta abar.

Gainera ikastaro amaierako frogak gaingintzen dituenak DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Sorosle-Titulua eskuratzeko aukera izango du.

Matrikularen kostea 100 eurotakoa da eta ikasle kopurua mugatua da ikastaroaren kalitatea bermatzearren. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko 943 464 622 telefonora deitu daiteke. •



SAN PEDROAK 2011

## Zikiro afariko txartelak astelehenean salgai jarriko dira

Urtero legez, Ttakun kultur elkarteak San Pedro jaietako lehenengo egunerako, ekainaren 29rako, zikiro afaria antolatu du.

Afaria Sorgin Jaien gunean izango da iluntzeko 21:00etan. Txartelak astelehenean, ekainaren 20an, jarriko dira salgai Ttakunen eta Jalgin 20 euroren truke. •

LASARTE-ORIA BIZILAGUNEN ELKARTEA

## Marrazki eta margoko ikasturte amaiera

Lasarte-Oria Bizilagunen Elkarteak jakin arazi nahi du, margo eta marrazki eskolako saioak bihar, ekainaren 18an amaitzen direla eta irailera arte ez dela saio gehiagorik egongo. •

LANAK

## Kalbario bidea itxita

Lasarte-Oriako Udalak jakin arazten du, Loidi-Barren eremuko P-6 partzelako lanak direla eta, Kalbario bidea ibilgailuentzako itxita dagoela.

Kale mozketatik atzoko goizeko 6:00etan egin zuten eta gaur 18:00ak bitartean ezingo da kale horretatik igaro.

Lasarte-Oriako Udaleko alkatetzak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik. •

# San Pedro jaien atariko musikala bihar

**I**kasturte amaiera dugu eta herriko elkarteek urtean zehar prestatu dituzten ekitaldiak erakusteko txanda da.

Bihar, 19:30ean, Ama Brigitarren komentuan, Alboka abesbatzak antolatutako kontzertua izango dugu.

Lasarte-Oriako abesbatzak bi zati izango ditu.

Lehenengoan, abesbatzaren harrobia den Alboka-txiki eta Donostiako Mariaren Lagundiako Txepetxa haur abesbatza izango dira.

Hauek doinu herrikoikiak eta nazioartekoak eskainiko dituzte, hala nola, *Gaztelugate* edo *lo sono un bambino* doinu italiarra.

Bigarren zatian, Lasarte-Oriako abesbatzak eliz abestiak eta kantu herrikoikiak, zein nazioartekoak abestuko ditu,



Alboka, Alboka txiki eta Txepetxa abesbatzek emanaldia eskainiko dute bihar.

besteak beste, Ennio Morriconeren *Gabriel's Oboe*, Bielen *Ave Maria* edo herrikoikiak diren *Maitai nun zira* eta *Brodatzen ari nintzen*.

San Pedro jaietako aurrekari ederra benetan. Horregatik, Alboka abesbatzak gonbidapena egin die herritarrei kontzertura hurbildu eta gozatzera. •

Ekainaren 11ean, larunbatean Lasarte-Oriako momentu historikoa bizi zuen alkatezeta aldatetarekin. PSE-EE 25 urtez gobernuan egon eta gero, Bilduko alkategaiari, Pablo Barriosi

pasa zion "makila". Egun horretara bitartean mila zurrumurrurik hedatu ziren herrian zehar eta beste hainbeste tirabira izan ziren alderdi politikoaren artean. Behin jada kontuak argitu

direnean Lasarte-Oriako Herri Plataformak bere bi botoak Bilduri ematearen arrazoiak azaldu nahi izan ditu, eta egun hauetan gertatutakoak eta entzundakoak ondo argitu.

# Oposizioan izango da Plataforma

- Bildu-EAJ koalizioari babes ematearen arrazoiak azaldu nahi izan die LOHPk herritarrei
- Zaballosen "negoziatzeko erak" galarazi zuen LOHPren akordio batetara iristeko aukera

**M**aiatzaren 22ko hauteskundeetan ondoren zurrumurrurik egon eta esamesa ugari da herrian, nor norekin elkartuko zen, nor izango zen alkate eta abar, "horregatik guk azken 20 egun hauetan gertatutakoak azaldu nahi dugu, bizilagunek azalpen bat merezi dutela uste dugulako" adierazi dute LOHP taldekoek.

Komunikabideetara bidali duten prentsa oharrean argitu nahi izan dute erak betidanik elkarrizketaren aldeko apustua egin dutela: "udal hauteskundeetan emandako emaitzak ikusita bagenekien hitz egiteko garaian geundela". Baina era berean, gaineratu dute euren emaitzek ez zirela lehen pausua ematera behar izan eta horregatik beste alderdi politikoekin iniziatibak zain geratu zirela.

Denbora asko pasa gabe, iritsi zitzaizkien lehen hartue-manak: "maiatzaren 27an, goizean Zaballos jaunarekin bilera izan genuen eta arratsaldean Barriorekin. Honek hasiera puntua baino ez zuen markatu" adierazi dute Plataformako ordezkariak.

## PSE-EERI ezetzkoa

Alderdi sozialistari erraz eman omen zioten ezetza plataformakoek azaldu dute: "bere autokritika falta eta ezintasunarekin batera, guk Zaballosi eskatutako erantzukizun eta zintotasunak bere aldetik jaso zuen ezetza, adostasun batera iristeko bideak itxi zituen".

Honetaz gain, plataformaren iritziz, "Zaballos jaunak ez zuen ulertu guk dirurik nahi ez izatea, badirudi orain arte hori izan dela Lasarte-Oriako PSE-EEko negoziaketetan erabiltako bidea. Guri zenbat diru emateko prest zegoen gure babes eskuratzeko?". Hasieratik argi utzi nahi izan zioten LOHPren babes ez zutela diruz eskuratuko "eta ohiko gezurretara itzuli ziren". Jarraian hau ikusita LOHP konturatu zen "jende honekin paktatzea 25 urte hauetan jasan duguna lau urtez luzatzea izango litzakeela eta gu ez gaude



Juan Jose Castro eta Ana Isabel Prieto izango dira hurrengo lau urteetan LOHPren izenean oposizioan lan egingo duten bi zinegotziak.

antzerki honetan antzezle bihurtzeko prest".

## Bildu-EAJ koalizioa

LOHPk argi zuen hasieratik bi aukera zituela, bata babes emateko eta bestea Bildu-EAJ koalizioari. Bigarren aukera honek aldaketa nabarmena ekarriko zuen herrira "baina horretarako

udaleko gestioan aldaketa emateko eta hau modu errealean eta gardenean garatzeko konpromiso bat ikusi behar genuen, gure bozka argi geneukan ez zela PSE-EE gobernutik kentzeko izango". Bildu-EAJ koalizioaren gora behar ere aipatu ditu Plataformak: "EAJko zinegotziak argi utzi zituzten Bildurekin

paktatu nahi zutela nahiz azken momentua arte hori gauzatzeko trabak egon, azkenean EAJko buruzagiek Lasarte-Oriako zinegotzietara bidea ireki arte".

Gainera, LOHP babes emateko baldintza minimo batzuen sinadura nahi zuten eta hori "ekainaren 11n bertan eman zen".

## Gobernutik kanpo

Bildu eta EAJ izango dira hurrengo lau urteei begira Lasarte-Oriako udal gobernuan. LOHPk adierazi duenez, agintean izango diren bi alderdiek "une oro gobernuaren parte izateko eskatu zituzten" baina eurak ezetz esan zieten: "argi daukagu jaso genituen 980 herritarrek guregan konfiantza jarri zutela orain arte bezala lanean jarrai dezagun, oposizioan, eta hori egingo dugu" gaineratu dute.

LOHPk euren erabakien zergatiak azaldu nahi izan dizkiete maiatzaren 22an botoa eman zieten herritarrei eta herritar guztiei oro har: "aldaketa erreale baten esperantza egon delako eman diogu Bildu-EAJ koalizioari botoa". Halaber, argi utzi nahi izan dute "guk alderdi politikoetan baino pertsonengan sinesten dugu eta hurrengo lau urteetan gobernatzen ibiliko diren hauengan konfiantza osoa jartzen dugu". Hori bai, "argi eta garbi diogu oposizioa garetara eta horren alde lan egingo dugula" bukatu dute plataformakoek prentsari bidalitako orrian. •

## Lasarte-Oriako gobernu eraketa

### Bildu-EAJ koalizio gobernu

#### Bildu

- Pablo Barrio (Alkate)
- Nerea Sanchez
- Gorka Lizarraga
- Alaitz Mendizabal
- Taxio Agirrezabalaga

#### EAJ

- Estixu Alkorta
- Boris Nogales

### Oposizioa

#### PSE-EE

- Jesus Zaballos
- Iñaki Mugica
- Nerea Artamendi
- Txus Alonso
- Lourdes Acevedo
- Martin Moreno
- Marisa Zubiri

#### LOHP

- Ana Isabel Prieto
- Juan Jose Castro

#### PP

- Vanessa Velez

# Berrien gaitasuna kolokan jarri du PSE-EEK

Jesus Mari Zaballosek prentsaurrekoan eman zuen alkate aldetari buruzko iritzia

Lasarte-Oriako PSE-EEK alkate berriaren izendapenaren balorazioa egin zuen asteazkenean, eta herriko Gobernu osatu duten alderdien eta aldaketa bultzatu dutenen jarrera salatu zuen, EAJ eta LOHP alderdiena batez ere. Eta oposizio lasaia eta herriaren aldekoa egingo dutela jakinarazi zuen. "Lasai asko goaz oposizioa, herritarrekin hartu ditugun konpromisoak defenditzera".

**L**asarte-Oriako alkate ohiak, Jesus Zaballosek, herriko alderdi sozialistaren izenean prentsaurrekoa eskaini zuen asteazkenean. Honetan, EAJ, Bildu eta LOHP alderdien "paktua" eta alkatezako aldaketa izan ziren hizpide.

Lege-aldi berrian Udalean PSE-EEKo bozeramale izango den Jesus Zaballos larunbateko Udalbatzarrari buruz mintzatu zen hasteko: "Larunbatean alkate berria aukeratu zen, jendez betea zegoen udalbatzarran. Hain juxtu, duela gutxira arte, liskarrak sortu, iraindu eta mehatxatzen gintuzten jendez beteta," esan zuen.

## Herriaren iritzia aurka

Alderdi sozialistako kideak azpimarratu zuenez, alkate berria aukeratu zen, "baina ez zen zerrenda botatuena errespetatu. Gehiago diot, ez zen lasarteoriatar gehien iritzia errespetatu Pablo Barrio, ezker abertzaleko zinegotzia, hautatzearekin".

"Gertatutakoa errespetatzen dugu, ez baitugu prozedura demokratikoa zalantzan jarren," jarraitu zuen Zaballosek, baina "herritar gehien iritzia-aren aurka" sortu den gobernu berriaren gaitasuna zalantzan jarri zuen, aldaketa bultzatu duten hiru alderdien jarrera salatuz: "Lasarte-Oriango gehien-berria sortu dute, Bildu, EAJ eta LOHPk, baina programa hain minimoa dute, ez dakigula herriaren etorkizuna zein izango den. Programarik gabeko gobernu berria sortu da, frontetik, sozialistak alkatetzatik botatzeko helburu bakararekin," aipatu zuen Zaballosek.

Hiru alderdiek herritarrei ziria sartu izana ere salatu zuen alkate ohiak: "Hauteskunde gauek alkate berriaren izendapena erabakia zegoen, egin horretatik jakina zena Bildu eta EAJk baieztatu egin zuten, baina Plataforma agerikoa ukatu egin zuen koldarke-riaz jokatu eta gardentasun falta handia erakutsiz."

## Somotoko auzia

Honetaz gain, EAJ eta LOHP Somotoko auzia erabili izana ere azpimarratu zuen,

"batzorde berezia PSE-EEren aurkako guda izan da. Akoso kanpaina". Era berean, Plataforma edo Ezker Batuak ez bezala, EAJk denuntziarik jarri ez izana kritikatu zuen. "Probak badituzte, eraman ditzatela epaitegira. Epaitegiak delitua dagoela badio, erantzuleek ordainduko dute. Baina deliturik ez dagoela badio, alderdiek kostak ordaintzeko konpromisoa hartzea espero dut," adierazi zuen.

## Bozkak errespetatu

Bilduri dagokionez, zera esan zuen, "bere jarrera ulergaitza salatzen dugu, Euskadi osoan zerrenda bozkatuena errespetatu beharra aldarrikatu du. Argi dago, horrek zerrenda nazionalistekin bakarrik balio zuela," adierazi zuen.

Honetaz gain, alderdi abertzaleari mezua bidali zion, "udaletxea kudeatzen azkar ikastea espero dugu. Gehiegi dago jokoan esperimentuak egiten hasi edo udaletxea politikoaren eskola bihurtzeko. Herritarren arazoak erantzun azkarrak behar dituzte, udala ezin baita geratu".

## PSE-EE alkatetzatik bota

EAJren kasuan, alderdi jeltzaleak hasieratik, helburu bakarra izan duela uste du Zaballosek, "alderdi sozialista alkatetzatik botatzea", alegia. Gainera, bere iritziz, Euskadiko EAJk bat egin du Lasarte-Oriako EAJren helburu horrekin: "Horren erakusle da, Euskadi osoan jeltzaleek haien hautagaiei bozkatu duten bitartean, Lasarte-Oriango hautagairik ez aurkeztu eta ezker abertzaleko hautagaiari ematen zitotela botua".

Eta kasu honetan, gorroto pertsonal eta ezinikusiak herriarekiko erantzukizunak baino pisu gehiago izan duela azpimarratu zuen Zaballosek.

"Ez da gobernu alderdi bat bezala jardun, edozein preziotara eta programa berria zehaztu gabe ezker abertzalearekin paktua egin du. Bi kargurengatik, hain baliotsua den Lasarte-Oriako herria oparitu diete" adierazi zuen.



PSE-EEKo zinegotzien babesa izan zuen Jesus Zaballos alkate ohiak asteazkenean eskaini zuen prentsaurrekoan.



Jesus Zaballosek PSE-EEren bozeramale lanak egingo ditu oposizioan.

Era berean, GBBen jarrerarekin desengainua izan dutela jakinarazi zuen PSE-EEKo ordezkariak, "gure herriaren larunbatean gertatutakoaren ostean, ez baitu neuririk hartu".

## Jarrera koldarra

LOHPri ere kritika zorrotza egin zion. Alderdiak jarrera koldarra izan duela azpimarratu zuen. "Ideologia desberdinetako pertsona independenteek osatutakoa dela esan dute beti, baina kezka amankomun batekin: Lasarte-Oriatoko herritarren interesa. Larunbateko jokoaren ostean, argi utzi dute ez direla "ez eskuineko, ez ezkerrekoak", argi, herriko ezker erradikalaren, ezker abertzalearen eskutik joan direla, hainbeste defenditzen duten herriaren iritzia kasurik egin du. Bi kargurengatik, hain baliotsua den Lasarte-Oriako herria oparitu diete" adierazi zuen.

"Lasarte-Oriako gehiengoaren erabakiaren aurka zergatik joan diren herritarrei

azaltzeko lau urte hauetan gaitatea espero dugu," jarraitu zuen PSE-EEKo bozeramaleak.

Eta "argi izan behar dute, nahiz eta udal gobernuan ez egon, alkate berriaren erabakien erantzule izango direla. Izan ere, bere bi zinegotzien botuei esker, alkate besaulkia du Barrio jaunak, gure herriaren indar bozkatuena izan gabe," gaineratu zuen.

Izan ere, Zaballosen ustez, Plataforma PSE-EE eta PP alderdiei bozka ematen zietenek osatzen dute. Horregatik, abstenitu egin behar zen "Lasarte-Oriako gehiengoaren iritzia entzun behar zuen, udal kudeaketa ez oztopatuzko".

Era berean, oposizioako hiru alderdiek sinatutako akordioa, PSE-EEK ere sinatu zezakeela azpimarratu zuen.

Alderdi guztiekin bilerak izan dituela eta EAJk hasieratik aldetaren alde zegoela aitortu zuen, ez ordea Plataforma.

"Haiekin bilera bat egin genuen eta haiek lau Bildurrekin. Haiek erantzukizuna eta zintzotasuna eskatu ziguten. Zehazki kooperazio arlora jo zuten eta honetan Urchueguia, Acevedo eta Mugicaren dimisio eskatu zuten.

Nik deliturik ez zegoen bitartean, haiek ez zutela haien kargua utziko erantzun nuen," aipatu zuen.

Eta Plataformak bigarren bilerarako hitzordurik ez zuela jarri aipatu zuen, "ordurako, erabakia zuten ez zutela PSE-EErekin negoziaketetan jarraituko.

Gainera, ostean, negoziaketetan jarraitzeko guk deitu behar geniola aipatu zuten, gu ginelako interesatuak."

## Oposizioa egin

Azkenik, sozialistek oposizioan egingo duten lanari buruz hitz egin zuen, "legealdi berri honetan, sozialistak oposizio-ara goaz lasaitasun osoz eta gure herritarrekiko eta Lasarte-Oriarekiko dugun konpromisoa erakutsiko dugu".

Herritarrentzat hobereena dena egiten saiatuko direla aipatu zuen, "kanpainen hartu eta maiztaren 22an berretsiak izan ziren 100 konpromisoak aurrera eramaten saiatuko gara".

Hori baita sozialisten ustez, "aurrera egin eta guztion Lasarte-Oria sortzeko herri honek behar duena".

Hala ere, Zaballosek onartu zuenez, "Gobernuak aurkezten dituen proposamenek, gure babesa izan ditzakete, gure ustez herritarren onurarako badira" azpimarratu zuen PSE-EEKo Jesus Maria Zaballos alkate ohiak. •



Gogor lehiatu da Maialen Chourraut Europarrear. Arg.: Europako txapelketako weba.

## Chourraut bosgarren izan da Europako Txapelketan

Maialen Chourraut palista lasarteoriatarra La Seu d'Urgellen ekainaren 9tik 12ra jokatu den Slalomeko Europako txapelketan parte hartu du emaitza onarekin.

Banak eta taldean K-1 mailan lehiatu da Maialen eta Europako bosgarren postua eskuratu du bakarkako txapelketan.

Taldeak txapelketan, lehengo asteko ostegunean, arazo bat izan zuten eta finaletik kanpo geratu ziren.

Banakakoan, berriz, final laurdenetan laugarren denbora egin eta larunbateko fina-

lerdietan egoteko txartela eskuratu zuen.

### Finalean zortetik ez

Larunbata goizeko finalerdian Maialenek bigarren denbora onena egin zuen, 1'08" 71.

Eta finalean, jaitsiera azkarrak egin zuen Lasarte-Oriako gazteak, 1'03" 52. Denbora horrek Europako titulua eman ahal zion. Tamalez, azken ateetan akats batzuk egin eta 4 segunduko zigorra ezarri zioten epaileek.

Era honetan, Chourrautek bosgarren postuan bukatu zuen txapelketa. •

# Udabe eta Erkizia Herriko squash txapelketako finalean

Final handiaren aurretik, kontsolazio finala eta hirugarren postua egongo dira jokoan larunbatean 16:00etatik aurrera

Hogei jokalarik hasi zuten XXIII. Squash txapelketa herrikoia baina bi dira bihar, 17:00etatik aurrera, kiroldegiko squash pistetan finala jokatuko dutenak, Alberto Udabe eta Agustín Erkizia.

Bi jokalarik hauen sailkapena ez da harrizkoa. Izan ere, hirugarren urtea da, bi jokalarik hauen arteko norgehiagokaz gozatu daitekeena.

Maiatza bukaeran sartu zen squash txapelketa bigarren fasean.

Geroztik, sei jokalarik egon dira finaleko txartelaren bila: Alberto Udabe, Oswal Cañedo, Quinin Calvo, Agustín Erkizia, Iker Cañedo eta Jon Linazisoro.

Ligaska moduan jokatu duten fase hau eta azken partida asteazkenean jokatu zen.

Fase honetako sailkapeneko bi lehenengok lortu dute finalean egotea; hurrengo biek, aldiz, Quinin Calvo eta Oswal Cañedok txapelketako brontzezko postua eskuratzeko aukerak dituzte.



lazio Squash finaleko sarituak herriko kirol zerbitzueta eta udal ordezkariekin.

### Kontsolazioa

Postu hori, final handiaren aurretik, erabakiko da.

Izan ere, 16:00etatik aurrera, bi partida ikusteko aukera egongo da. Aipatutako 3. postua egongo da jokoan eta bestean, Kontsolazio faseko garailea erabakiko da.

Hamalau jokalarik jokatu dute kontsolazio fasea hau. Kanporaketa sistemaren bidez, bi izan dira finalera iri-

tsi direnak: Michel Zugasti eta Xabier Linazisoro.

### Igerilekua itxia

Bestalde igeriketa txapelketa dela eta, larunbat goizean udaleko igerilekua itxia egongo da erabiltzaileentzako. Udako kirol instalazioko abonentuek Andoaingo (943 300 147) eta Usurbilgo (943 373 498) igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute. •

## Kiroletako agenda

### ARETO-FUTBOLA

#### Ostirala 17

MOSO OROIMENEZKOA TXAPELKETA  
Udal Kirol guneko areto-futbol pistan  
19:30ean, Buenexea - Izarra  
20:30ean, Izkiñ - Ainhoa

#### Larunbata 18

MOSO OROIMENEZKOA TXAPELKETA  
Udal Kirol guneko areto-futbol pistan  
10:00etan, S. Andaluz - Viña del Mar  
11:00etan, ISU Leioak - Illun

### PILOTA

#### Ostirala 17

UDABERRI TXAPELKETAKO FINALERDIK  
20:00etan, Usurbil - Intza (Eskuz banaka 4 t'erdian, I. kadeteak) Aginagan.  
20:30ean, Gazteleku 3 - Intza (Eskuz binaka, infantilak) Arrate, Andoain.

#### Larunbata 18

SAN PEDROTAKO TXAPELKETA  
Loidi-Barreneko frontoian, 10:30ean  
Benjaminak  
Iker Sarasola eta Iñaki Urruzola - Ibon Otxandorena eta Ibai Iribar  
Alebin B, A taldea:  
Gorka Aristondo eta Gorka Arroio - Alex Etxeberria eta Jon Ibizate

### Alebin A:

Adrian Apaolaza eta Noa Carretero - Axier Urruzola eta Eneko Ortiz Aritz Sarobe eta Jokin Rodriguez - Julen Urruzola eta Axier Nogeira  
Beteranoak  
Juan M. Arteaga eta Juantxo Prieto - Jesus Presa eta Juan Luis Yeregi

### UDABERRI TXAPELKETAKO FINALERDIK

18:00etan, Intza - Mundarro (Eskuz banaka 4 t'erdian, II. kadeteak) Michelingo pilotalekuan.  
18:00etan, Intza - Ziozza (Eskuz banaka 4 t'erdian, I. kadeteak) Michelingo pilotalekuan.

### Igandea 19

SAN PEDROTAKO TXAPELKETA  
Loidi-Barreneko frontoian, 10:30ean  
Beteranoak  
Xabi Etxezarreta eta Migeltxo Aristegi - Jesus Presa eta Juan Luis Yeregi

### PALA

XXX. SANTA ANA TXAPELKETA  
Loidi-Barreneko frontoian  
Astelehena 20  
18:30ean, A taldeko partida  
19:30ean, A taldeko partida

### Asteartea 21

18:30ean, B taldeko partida  
19:30ean, B taldeko partida

### Asteazkena 22

18:30ean, C taldeko partida  
19:30ean, C taldeko partida

### Osteguna 23

18:30ean, D taldeko partida  
19:30ean, D taldeko partida

### SQUASH

HERRIKO TXAPELKETA - FINALAK  
Kiroldegian

#### Larunbata 18

Kontsolazio finala:  
16:00etan, Michel Zugasti - Xabier Linazisoro  
3. eta 4. postua:  
16:00etan, Quinin Calvo - Oswal Cañedo  
Final nagusia:  
17:00etan, Alberto Udabe - Agustín Erkizia

### TXIRRINDULARITZA

Larunbata 18  
16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako jubelinek LXXVI San Juan

Sarian parte hartuko dute, Eibarren.

#### Igandea 19

08:00etan, Ostadarreko zikloturista taldeak Gaintzara egingo du irteera.  
16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteak XXVI Olakua proban parte hartuko dute, Oráin.

### TRIALOIA

#### Larunbata 18

16:00etan, herritar talde batek Lekeitioko Triatloian parte hartuko du.

### IGERIKETA

#### Larunbata 18

10:30ean, Buruntzaldeko Igeriketa taldeko gazteak Lasarteko XXII. Sarian parte hartuko dute, kiroldegian.

### ATLETISMOA

#### Larunbata 18

10:45etatik aurrera, LOKEko kadeetee Euskadiko txapelketan parte hartuko dute, Donostian.  
18:30ean, herritar talde batek Azeri bila lasterketan partehartuko du, Herri-nanin.

### Igandea 19

09:30ean, herritar talde batek VIII. Lakuntza-Aralar Mendi Lasterketan parte hartuko du, Lakuntzan.  
10:30ean, herritar talde batek lokin Intxausti Oroimenezkoa-Herrerako Kros herrikoian parte hartuko du, Donostian.

### TENISA

#### Ostirala 17

Asteburu osoa, Patxi Fadrique herritarrek Galiziako A Coruña hiriko tenis egokituko I. Nazioarteko Openean parte hartuko du, A Coruña.

### COMPACT-SPORTING

#### Igandea 19

Egun osoan, Buruntz Azpi elkarteak Compact-Sportin txapelketa antolatuta du, Oiarzungo Arkale zelaian.

### GIMNASTIKA

#### Igandea 19

11:30etatik aurrera, LOKEko gimnastek erakustaldia egingo dute, Kiroldegian.

Egunero

**Erakusketa**

KIRIOAK DANTZAN, Vanessa Gimeno diseinatutako kamiseten erakusketa. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan.



Ostirala, 17

**Kontzertua**

JOKIN GOENAGA akordeoi jolearen emanaldia Xpression eta Udalak duten hitzarmenaren barruan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.



Rock itsua ez dago krisian

IBON CASASEK "La pasta por delante" diska berria ia prest dago. Rock itsua ez dago krisian, baliabide ekonomiko ezak proiektua pixka bat atzeratu besterik ez du egin. Ibonen musika energia hutsa da, grabatua dago, nahastuta eta lbonek berak ekoiztu du, Rafael Bajo lagunarekin batera.

Bien artean eta hainbat kolaborazioekin oso lan txukuna egin dute, nahiz eta ez egin estudio izugarri batean. Diska hau maitasun askorekin eta dirurik gabe egin da.

GAUR OSTIRALA, HILAREN 17A  
 ABEND KAFE-ANTZOKIAN  
 GAUEKO 12:00ETIK AURRERA

**Kontzertua**

YEMAMAH (Musika Brasildarra, Bossa, Pop, e.a...) musikariaren emanaldia Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan.



Osteguna, 30

**Kontzertua**

AUPA QUARTET, Bartzelonatik etorritako soka laukotearen emanaldia. Laukote honen partaidetako bat herritarra dugu, Asier Suberbiola. Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan, EUSKARAZ.



**Oharrak**

**Sorgin dantzako entseguak**

San Pedro egunean Oriako Sorgin Dantzan atera nahi dutenek bihurtik aurrera, entseguak dituzte, Landaberrri BHiko patioan astearte eta ostegunetan 20:00etan hasita.

Era berean, gogorarazten da, haurren zortzikotean joan nahi duten urteetan 1997, 1998 eta 1999. jaiotako gaztetxoek kultur etxeko Gazte informazioaren izena eman behar dutela.

**San Joan gaueko Soka-Dantza prestatzeko saioak**

Erketz Dantza Taldeak antolatuta, ekainaren 16an arratsaldeko 19:00etan Zumaburuko eskolako gimnasioan, San Joan gaueko Soka-Dantza prestatzeko saioak egingo dira. Hauen iraupena ordubeteko izango da, beraz 19:00etatik 20:00etara izango dira. Animatu zaitzete partehartzera!

**San Joan gaueko ekitaldiak Okendo plazan**

Urtero bezala, San Joan Zortziko dantzak da Udaltxeko parean gaueko 21:30ean. Ondoren, Udaltzako, Erketz EDTko dantzariak lagun dituela, Okendo plazara abiatuko da, eta, han, Soka-Dantza tradizionala dantzatzeko dute 22:00etan

San Joan Sua piztuko dute plazan bertan.

**Maria Auxiliadoraren meza**

Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da ekainaren 24an, ostiralean, arratsaldeko 17:00etan.

**Odol ateratzekak**

Hilabete honetan odol ateratzekak lehenago egingo dira, ekainaren 23an, ostegunetan, hain zuzen ere Osasun Zentroan, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta odol falta dago eta!

**Hilotzekin Zaragozara**

Ekainaren 25ean, larunbatean, Lasarte-Oriako Hilotz taldeak Zaragozan kontzertua eskainiko du.

Zaragozara lagundu nahi dieten guztiak aukera izango dute, egunean bertan Donostiatik autobus bat aterako da goizeko 09:00ak aldera. Interea duenak 637 250373 telefono zenbakira deitu dezala eta Mikeletaz galdetu.

Autobuserako txartela 30 euroko prezioa izango du. Hilotz taldeak jendea animatu eta eurekin Zaragozara joateko gonbitea luzatu nahi deitu.

Liburutegiko ordutegia

Astelehene ostiralera 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

**Eskutitza**

**Lasarte-Oria Bai**

2011ko ekainaren 11 egun historikoa izan da Lasarte-Orian. Aspalditik espero zen eguna iritsi da, ilusioaren eguna, eredu berri baten hasierako eguna, konpromezuaren eguna, aldaketa beharrenduaren eguna. Larunbateko momentu berezia izan zen: askorentzat urduritasun eta kezka nagusi lehenengo eta festa ondoren.

Lanerako garaia da, umiltasun eta arduraz, inor gutxietsi gabe, albokoari entzun eta erantzunez, garai berriak datoz Lasarte-Oriara.

Ateak eta leihoak parez-pare ireki behar dira, aire freskoa sar dadin. Azken 25 urte hauetan bizi izan dugun gestio itxi eta pertsonalizatuari amaiera eman behar zaio.

Lasarte-Oria ez daukagu "altxorren bila" joan beharrik, altxorra jadanik herrian dugulako (zenbat jende lanean, kirol, antzerki, dantza, gazte, heldu, aisia taldeetan) Giza talde/jende hau

goxatu, lagundu eta ardurak eman eta eskatuz sortzen da altxorra eta hori da udalak egin ez duena.

Maiatzaren 22ko emaitzak ikusita (eta aurretik ere) aldaketa nahia nabaria zen oposizio alderdien eta herritarren artean.

Egia da Zaballos jauna zu alkate izan zaren bitartean jarrera aldaketa nabarmena egon dela, baina hori bakarrik (fatxada polita eta etxe barruan aldatarik ez).

Batzordeetan eztabaida gutxi, erabakiak alde aurretik hartuak, oposizioarekiko jarrera baztertzailerak (kontxo egia da, oposizioak kea bakarrik saltzen du eta gainera alperak dira ez dute lanik egiten, gogoratzen Zaballos jauna, zuk esanak dira, harro-harro www.sozialtasalarteoria.com).

Eta pastelari goxokia jartzeko Somotora bideratutako dirulaguntzen batzorde bereziaren gestio/amaiera. Lehendabizi idazkariaren txosten eskasa eta partzialaren filtrazioa eta ondoren plenoaren (PSE-PP) onarpena. Ze gaizki

gestionatu duzun / duzuen Zaballos jauna legegintzaldi amaiera hau, agian konfidantza gehiegirekin.

Azken lau urte hauetan, konfidantza giro bat sortu eta landu dugu oposizio alderdien artean eta bere fruituak eman ditu.

Benetan txalotzekoa (Bildu, EA) eta Herritarren Plataformak bukaera arte erakutsi duzuen, koherentzia eta konpromezua. Herria zain zegoen, ezin zitzaion hutsik egin, Lasarte-Oriak merezi zuen.

Lanerako garaiak datoz, gestio desberdin bat eginaz, batzordeetan herriko taldeei beraien proposamenak egiteko aukerak emanez (inor baztertu gabe), akordiotara iristeko borondatea jorratuz.

Buruntzatik Lasarte-Oriara eta Aralartik Euskal Herri osora ilusio eta esperantza iritsi dira.

"Pausorik pausoz beti bidea eginaz geroa irabazten ari gara"

**Txanpi Baztarrika,  
 Joxe Goikoetxea, Itziar Iartza  
 Ekzer Abertzaleko  
 zinegotzi ohiak**

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943 366858  
 txintxarri@txintxarri.info

Mari Jose Eizmendi Ttakuneko lehendakari ohia

# “Odol gaztea behar du Ttakunek”

Tomas Arrizabalagak hartu zuen maiatzean Mari Jose Eizmendiren lekukoa zuzendaritzan

Zortzi urte eman ditu Maria Jose Eizmendik Ttakun elkarteko lehendakari, berak hartu zuen Sebastian Kerejeta lehen lehendakariaren lekukoa eta maiatzean pasazioa Tomas Arrizabalagari, lehendakari berriari. Hainbat ekimen gauzatu ditu Lasarte-Oriako euskara elkarteak urte hauetan, hainbat gorabehera izan dira eta horren guztiaren errepasoa egin du Ttakunek izan duen azken lehendakariarekin.

JON ALTUNA

**Zortzi urte Ttakun-eko lehendakari moduan, pozik bete al duzu lana?**

Pozik, bai. Baiezkoa eman nuen egunean nahiko urduri sentitu nintzen, gainera, eta beharbada neronek egin dut lanik xamurrena, lehendakari izatea xamurragoa da zuzendaritzako beste lagunek egin dutena baino.

Nolabait, euskararekiko daukagun obligazioa edo konpromisoa da, beste urrats txiki bat euskararen alde. Uste dut euskararen etorkizunaz eta egoeraz kezkatuta gaude-nok badaukagula zerbait egiteko, nolabaiteko obligazioa: ez da nahikoa Ttakunkide izan, kuota ordaindu eta kito, dirua behar-beharrezkoa izanagatik ere, diruarekin ez da guztia lortzen.

**Nola baloratzen duzu zortzi urte hauetan egindako lana? Nolako lantaldea da Ttakunen?**

Nire ustetan lan garrantzitsua egin dugu. Eta hori aurrekoen lanari esker izan da. Dudarik gabe, nire aurrekoek, Sebastian Kerejeta eta haren zuzendaritzako kide izandakoek, lan handia egin zuten, eta miresmena merezi dutenak langileak dira, bai ordukoak eta oraingoak ere bai, noski.

**Nolatan animatu zinen hola-ko ardura hartzera?**

Animatu? Behartuta ikusi nuen nire burua.

Egia esan, nigan pentsatu zutela esan zidatenean batetik oharatua sentitu nintzen, baina bestetik pentsatu nuen ni ez nintzela gai izango postu hori betetzeko. Nire euskara maila-erengatik. Hizketarako ondo menperatzen dut, baina ikasketak gazteleraz egin nituen eta nire lanbidean ere gai asko erdaraz jorrazten ditugu.

Ttakunen nagoenez geroztik asko ikasi dut. Txosten luze eta zabalak euskaraz irakurri beharrek asko lagundu dit. Askotan eman dit Ttakunek alde horretatik.

**Zein egoeratan ikusten duzu euskara Lasarte-Orian?**

Ttakuni esker askoz ere hobeto. Nik uste dut Ttakun sortu ez balitz momentu honetan Lasarte-Oria euskara mailaz dezente atzerago egongo zela. Ez da nahikoa haurrak ikastolara bidaltzea edota euskaltegira norbera joatea, beharrezkoak izan arren, oinarrikoak esango nuke, baina hortik aurrera beste ezer egingo ez balitz, dexente atzerago egongo litzateke euskararen maila.

**Beraz, beharrezkoa al da Ttakunen lana?**

Dudarik gabe. Oso harro sentitzen naiz gainera Ttakun Lasarten sortu zelako. Beste herriren batean sor zitekeen honelako euskara elkarerik, baina berebiziko garrantzia du Lasarte bezalako herrian izateak, herriak jasan duen hizkuntz dominazioa aintzat hartuta, eta beharbada horrek bultzatuta...

**Ttakunen lanetik zer nabarmenduko zenuke?**

Herri osoaren eskura dagoela nabarmenduko nuke, beti jendea gora eta behera ikusten dugu. Oso irekia da, ekintza irekiak eginen dira eta jendeak parte hartzeko modukoak.

**Eta zein da zailtasunik handiena?**

Euskaldun zaharregina iristea. Ttakunen helburua euskara sustatzea denez, haien zuzendutako ekintza askorik ez da antolatzen.

Ezinbestekoak dira Solaskide programa burutzeko, baina askotan ez dira ausartzen edo ez dute euren burua gai ikusten, alfabetatu gabeak direlako.

Eta hemendik dei egin nahi nieke datorren kurtsu hasieran anima daitezten.



Ttakuneko zuzendaritzan ez ezik, elkarteko ekintza ugari hartu du Mari Josek, hala nola, Santo Tomasetan taloak egiten.

**Maratoia datorren urtean egingo da, beharrezkoa al da oraindik?**

Bai, nahiz eta lan asko eman. Ez nuke urtero egingo lanarengatik, baina maratoia gure bandera da, geurea eta mantendu behar dugu.

**Maratoiak jende asko batzen du Lasarte-Orian, alderdi politikoak ere bai?**

Jendea biltzen du eta nolabait esanda, bi eguneko iraupena bakarrik baldin badauka ere, kontzientziak astintzen ditu eta beti utziko du zerbait maratoiak.

**Ba al da alderik zuen gaztaro-ko euskaltzaleen eta gaur egungo euskara elkartearen edo euskaltzaleen artean? Asko aldatu dira gauzak, ezta?**

Asko aldatu da. Orduan Ttakun bezalako elkarerik ez zegoen, ezta pentsatzerik ere.

Euskararen alde zerbaitetan hasi nintzen eta Erketz dantza taldearen sorreran parte hartu nuen. Horretan seiren bat urte eman nituen.

Ikastolaren sorrera ere izugarria izan zen. Aitak dirua jarri zuen nahiz eta bere seme-alabok baliatzerik izan ez genuen.

Orduan zenbait arlotan kontzientzia galdu dugu. Ilusiorik handiena gauzak egiteko daudenean jartzen dugu. Eginda daudenean edo hori uste dugunean indarra galutzen dugu.

**Euskara elkarteek etorkizunik ba al daukate?**

Bai nik uste zer egin handia dagoela oraindik. Froga, Ttakunen sortzen diren ekimenak eta lanak dira. Hau adierazi egin beharko genioke Lasarte-Oriako herriari.

TXINTXARRIN argitaratzen diren albisteek aparte, Ttakunek beste lan asko egingen dituzte eta ez herri

honetarako bakarrik, baizik eta Euskal Herri osorako.

**Nola ikusten duzu Ttakun hamar urte barru?**

Pentsatzen dut hamar urte barru Ttakunek lanean jarraituko duela, lan asko dago oraindik egiteko, eta aniztasuna mantendu behar dugu, hori inportantea da.

Orain zuzendaritza aldatzea izan dugu eta ideia ezberdineko bi pertsona sartu dira eta horri eutsi behar diogu, euskara denona da eta.

Langileak ere zaindu egin behar ditugu, Ttakunen motora dira eta.

**Ba al da belaunaldien arteko erreleborik, gazteak aktibatuta al daude euskararen alde?**

Bi gazte sartu dira zuzendaritzan eta horrek poz handia eman dit.

Lehen ere esan dut, zuzendaritzan denetarik egon behar dela, aniztasuna oso garrantzitsua da baina arlo guztietan, eta adinean ere bai.

Gaur egun gazteak ez dira konprometitzen, ez dira bustitzen, nik uste, horretan alde handia dagoela ni gaztea nintzanez gaur egunera.

Nahi eta nahi ez sartu behar dute, haiek hartu behar digute erreleboa, Ttakunek iraungo badu eta aurrera joko badu, odol gaztea behar du. •



Elkarrizketa osoa,  
www.txintxarri.info  
webgunean